

Kutxabankek bulego nagusi berria ireki du Logroñon

- Bertan izan dira Errioxako gobernuko presidentea, Gonzalo Capellan, Logroñoko alkatea, Conrado Escobar, finantza-erakundeko CEOa, Eduardo Ruiz de Gordejuela, eta eskualdeko ekonomia, politika eta gizarte arloetako ordezkari ugari

2024ko urtarrilaren 16an. Kutxabankek Logroñoko egoitza nagusi berriaren irekitze-ekitaldi ofiziala egin du gaur arratsaldean; bulegoa Espolón aldean dago. Ekitaldira Errioxako erkidegoko enpresa, ekonomia, politika eta gizarte arloetako ordezkari ugari gonbidatu dituzte.

Ana Friasek, banku-erakundeko ipar eskualdeko zuzendariak, hasierako agurra egin ondoren, Logroñoko alkateak, Conrado Escobarrek, hartu du hitza, eta adierazi duenez, **"bulego berria logroñarren finantza-osasun onaren erakusgarri da, orain espazio berri bat dute ilusioak, finantza-proiektuak eta aurrezkiak uzteko"**. Nabarmendu nahi izan du, halaber, Kutxabanken bulego berriak **"leku ikonikoa duela hiriarentzat, konexio-puntu bat, zentro emozional, administratibo eta instituzionalean, eta horrek erantzukizun handia dakarrela. Jada ez zarete hiriko bizilagunak bakarrik, Logroñoko enbaxadore-postu bat betetzen duzue"**.

Kutxabankeko kontseilari delegatuak, Eduardo Ruiz de Gordejuelak, azpimarratu du Kutxabankek Errioxan bere negozio-bolumena handitzen jarraitzeko borondatea duela; gaur egun 780 milioi euro ingurukoa da urtean, eta guztira 358 milioi euro ditu administratutako baliabideetan. Laburbildu du esanez, alde horretatik **"Kutxabank Errioxako erakundea ere badela duela 33 urtetik. Hemen ez gaude, beraz, bidez edo pasadizoan. Sustraitzearen eta lantoki ditugun lurraldeekiko konpromisoaren alde egiten duen erakundea gara"**. Gaineratu duenez, **"gure bokazioa bezero partikularren eta enpresen bolumenean hazten jarraitzea da, dagoeneko ari garelarik horiekin lanean"**.

Lehen hitzaldi horien ondoren, Kutxabankek Logroñon dituen instalazio berriak bisitatu ahal izan dituzte agintari gonbidatuek. Bulegoak toki bakar batean integratzen ditu erakundearen balio erantsi handiena duten zerbitzuak, hala nola xehekako edo txikizkako bezeroentzako arreta pertsonalizatua, Banka Pertsonaleko dibisioa, Enpresetarako Banka eta Ipar eskualdeko zuzendaritza, Errioxa, Nafarroa, Aragoi eta Kantabria barne hartzen dituen.

Bulegoak Muro del Carmen kaletik du sarbidea, eta 1.170 m²-tik gorako azalera du, hiru solairutan banatuta. Sukurtsal berriak Solidaridad kalean, Avenida de la Paz-en eta Handizkako Bankaren 1. bulegoan zihardutenak ordezten ditu, eta giza taldea arlo

komertzialeko 20 kudeatzaile espezializatuk osatzen dute, 7.000 bezero inguruko zorroa eta 300 enpresa baino gehiago artatuko dituztelarik.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta European arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.